

Basque Writing 3

KORRIKA!

Hizkuntzaren aldeko herri-lasterketa



Agurra

Euskal PENen xedetariko bat da nazioartean ezagutzera ematera euskal idazleak, idazle hauek burutzen dituzten lanak eta euskal literaturarekin loturik daude gaiak. Lehenengo *Basque Writing* Haur eta Gazte Literaturari eskaini genion, eta bigarrena, aldiz, idazle gazteei, une batez ohartu baikinena 40 urtetik beherako 75 idazle ari direla kalitate handiko lanak plazaratzen.

Basque Writing honen bidez gai interesgarria hedatu nahi dugu nazioartean: hizkuntza gutxitua berreskuratzeke Euskal Herriak garatu duen ekimena, gure irudiko ekimen interesgarria eta beste hizkuntza gutxituentzat eredugarria izan daitekeena.

KORRIKA da errelebuka egiten den lasterketa. Hamar egunez, gau eta egun, euskal herritarrek errelebutako-lasterketa burutzen dute Euskal Herrian zehar, ia 2.000 kilometroan zehar. Ekimena 1980an sortu zen, eta azken 30 urte hauetan ez du etenik izan: bi urtetik behin milaka eta milaka hiritarrek kirol arropa eta zapatak jantzi eta kalera ateratzen dira korrika egitera. Zertarako? Euskara bizirik dagoela esateko, hizkuntza zaharra izanik ere geldirik ez dagoela aldarrikatzeko.

Gutariko guztiok dugu anekdotaren bat Korrikaren inguruan. Oraindik gogoratzen dut zer nolako harridura adierazi genuen gure herriko euskara-irakasleok 1980ean esan zigutenean eskualdea kilometroz kilometro neurtu behar genuela, eta mugari bakoitzean gutxienez pertsona bat lotu lekukoa hartzeko. Lekukoa hurrengo pertsonari emango zion jarraiko kilometroan. Bi egun lehenago bagenituen markak eginda errepidean klarionaz. Baina bezperan euria egin zuen eta berriz jarri behar izan genituen markak, arin-arinka.

Inondik inola ez genuen espero zoramen hura ondo aterako zenik. Baina ez genuen asmatu, antza. Korrika heldu orduko ehundaka pertsona zeuden kalean zain, korri egiteko prest.

Urte hauetan guztietan Korrikak ez ditu batu soilik Euskal Herriko hiri eta herriak. Beste herri batzuetara ere egin du jauzi. New York, Montevideo, Mexiko, Mar de Plata, Madrid, Bartzelona, Beijing, Shangai eta Sydney-ko euskaldunek Korrika antolatu dute euren bizilekuetan, eta egun, beste hizkuntza batzuk ere hasi dira korri egiten beraien hizkuntzen bizi-raupena aldarrikatzeko, gaelikoa, bretoaia, katalana eta galegoa besteak beste. Zehaztasun gehiago, ondorengo orrietan.



Laura Mintegi
Euskal PENeko lehendakaria

EUSKARA PUNPATZEN DUEN BIHOTZA



Lutxo Egia (idazlea)

Korrikan parte hartu nuen lehendabiziko aldian ez nekien euskaraz. Korrika zer zen ere ez nekien. Ondo baino hobeto gogoratzen dut. 1983. urtea zen. Korrika Baionan, mugaren bestaldean, hasi zen 1983ko abenduaren 3an. 14 urte nituen. 1960 kilometroko ibilbidea egin ostean, Bilbon amaitu zen abenduaren 11an, Euskaraz eta kitto! lelopean.

Halako batean korrikalari-multzo handi bat ikusi genuen Bilboko Zazpi Kaleetan. Auskalo zertan genbiltzan gu. Korrika batean zetorren jende mordoa oihuka eta kantuka ari zen. Sano giro alaia zegoen. Esan



lez, ez nekien zer zen lasterketa hura baina berehala ohartu nintzen hankek barik sentimenduek bultzatzen zituztela aurrera korrikalariak.

“Goazen!”, animatu gintuen lagunetako batek. “Euskararen aldeko lasterketa hori da. Ez dakizue?”

Ez, ez genekien. Dibertigarria iruditu zitzaigun une hartan korrikan hastea Bilboko kaleetan barrena.

Urte batzuk geroago, euskaraz ikasteari ekin nionean, 3. edizio hura ekarri nuen akordura. Hemerrotekara jo nuen. Aldi hartan, AEK-k Gabriel Aresti idazlea omendu nahi izan zuen. Korrika egin nuenean, euskaraz ez jakiteaz gain, Gabriel Aresti nor zen ere ez nekien. Ni bezala bilbotarra, ni bezala helduaroan euskaldundua eta euskal poesia modernoaren berritzaile nagusia. Eskolan bagenekien nor zen Cervantes, Shakespeare edo Moliere. Baina ez genekien nor zen Aresti. Egun, zorionez, edozein ikaslek daki nor den Aresti.

Behin baino gehiagotan galdetu diot neure buruari zergatik egiten dugun korrika euskaldunok.

Korrikak badu sistole-diaستoleko mugimendu bat. Edo, beste era batera, diastole-sistolekoa. Lekuko aldetetetan bide-bazterrean dauden lasterkariak xurgatzen ditu aspiradora bat balitz bezala; ondoren, poliki-poliki, modu goxo batean kanporatzen ditu. Erakarri eta sakabanatu. Hartu eta egotzi. Korrikaren indar zentripetuak barrura eroaten ditu zurrumbilo baten lez; bulkada zentrifugoak, aldiz, botatzen ditu.

Eta lasterketa honek euskara punpatzen du Euskal Herriko zoko-moko guztietara. Bihotz baten gisa. Bihotza mendateak arnastetuka igotzean; bihotza gauez lautadetan barna kasik bakarrik (ez, ordea, bakardadean) korri egitean; bihotza han-hemengo auzo eta herrietatik igarotzean; eta bihotza, lasterketan parte hartzeagatik, azterketa batera berandu heltzean.

EDURNE BROUARD

AEKko arduradunari elkarrizketa

“Lekukoa eskuz esku eramaten, denon parte hartzearekin, iristen gara helmugara”

Urtzi Urrutikoetxea (idazlea)

1980tik bide luzea egin du, milaka lagunek parte hartu du eta Korrika ekimen erraldoia da gaur egun. Euskara denona den ideia da nagusi, dakienak bultzatzen eta ez dakienak irakasten, eta azken urteotan Euskal Herrira etorri diren etorkinei eskaini zitzaizen azkena, horiei ere euskarara etortzeko gonbita eginez. Edurne Brouard da Korrika antolatzen duen AEKko koordinatzaile nagusia.

Zelan laburbilduko zenuke Korrika?

Hizkuntzaren alde egiten den manifestazio erraldoia da Korrika, beti ere era ludikoan eta jendearen parte hartzea bultzatzen. Hiru ezaugarri nabarmenduko nituzke: euskararen eremu osoa hartzen duela lehenbizi. Hurrena, denon parte hartzea bultzatzen duela, lekukoak irudikatzen du hori, helmugara iristeko, gure helburua betetzeko, denon parte hartzea behar da, lekukoak eskuz esku joan behar du. Eta hirugarrenik, korrika egitea, ez da lasterketa baina badauka sinbologia, ezin dugula astiro ibili, alegia, gure hizkuntzaren etorkizuna orain dago jokoan eta bizkor ibili behar dugu.

Ehunka mila lagunek parte hartzen dute, zein da horrelako zerbaiten prestakuntza?

Prestakuntza handia da. Korrika bat amaitzen den unetik hurrengoari ekiten diogu, lan ildoak prestatzen. Pertsona bat egoten da horretan lanean, ez bakarrik noski, laguntzaile asko daude, aurretik ibili direnak, batzuk jadanik ez daude AEKn, baina jarraitzen dute Korrikan babesa ematen. Ezaugarri nagusia lan taldea da, norabide bietan, goitik behera eta behetik gora, aurreko ekitaldiak aztertu, akatsak zuzentzen saiatu eta hurrengo urteetako lan ildoak prestatu. Beraz, hasieratik galdera egiten dugu: zer nahi dugu Korrikarekin? 2011n zer nabarmendu behar dugu euskarari buruz, zertarako egingo dugu Korrika? AEKko Biltzar Nazionalak eztabaidatzen du, herriz herriko taldeei kontatzen die eta haien iritzia jasotzen dute.

**Eta Korrika martxan denean zein da antolakuntza?**

Hor zailago dut erantzutea. Zer da antolatzen ibiltzea? Herri batzordeetan egotea? 500 herri ditugu, bakoitzean bost lagun daude gutxienez, parte hartze zuzenean badira 3.500-4.000 lagun. Oso zabala da kontzeptua, guretzat kamiseta erosten duena, kultur ekitaldietara doana, parte hartzailea da, korrika egiten duena ere bai, noski, baina baita balkoitik begira dagoen atso edo agurea.

Zelan sortu zen, Korrika?

Une oso delikatuak zen 1980. AEKk biziraupenerako ideiak behar zituen, dirua behar zuen eta denbora gutxian bildu behar zuen, Euskal Kontseilu Orokorra zegoen, arazoak aurreikusi ziren eta, kondairak dioenez, gau baten, afari bueltan sortu zen Korrikaren ideia. Hala ere, aurretik hainbat lan zegoen eginda, ez zen bat-batekoa izan. Azkenean ikusi zen hori zela ideia egokiena, bai diru bilketarako, bai herriaren parte hartze zuzena bultzatzeko. Bazeuden artisten artelanak saltzeko ideia, beste elkarte batzuk egin zuten legez, guk ere izan genuen ideia hori esku artean, baina parte hartzea hobetze aldera Korrikak daukan plus hori hobetsi genuen. Eta berehala ikusi genuen asmatu genuen,

Korrika herrietara heldu ahala kanpaiak jotzen zituzten askotan, kostan baporeek bozinekin egiten zioten agur, ordura arte ez genekien funtzionatuko ote zuen kilometroak saldu eta jendearen parte hartzearen ideia horrek, baina berehala ikusi zen baietz. Urtza Errasti egon zen hasierako arduradun, eta sarri esan du, Korrika abiatuta mendian zegoela, sekulako elurtea zegoela, eta hara non ikusi zuen mendatean gora zetorrela harrijasotzaile batek zeraman, harri borobila eta lekukoarekin zetorren, eta orduan esan omen zuen “hau betiko da”.

Nazioarteko harremanek ere badute garrantzia.

Ez hasieratik baina oso goizetik izan ditu AEKk nazioarteko harremanak. Korrika-3 edo 5 izango zen, eta orduko EKBrekin batera Ameriketako indigenei tartea egin genien. Aimara ugari egon ziren Bilbon Kale Nagusian korrika orduko hartan. Fenomeno bitxia da: Espainian Korrika ez da ezaguna, hedabideek ez diote behin ere jaramonik egin, politikarekin lotutako istilurik tartean ez bada. Baina herrien arteko harremanetan hainbatek eramaten dute Korrikaren ideia euren herrira. Katalanek eta galegoek egin dute, ez kopia hutsean, ez maiztasun berarekin edo lurralde osoan, baina ideia beretik abian. Azken bi urteotan indar handiena eta gure antzekoena Britainia Aukoa izan da, aurtan Irlandan ere hasi dira egiten eta datorren urtean Galesen ekingo diote. Hori beste herri eta hizkuntzei dagokienez, baina badaude euskal Korrikak mundu zabalean ere, Afrikan izan ezik gainontzeko kontinente guztietan egin izan dituzte Korrikak herrialde horietan dauden euskal komunitateak.

ZER DA KORRIKA?

Nola sortu zen

Korrika, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) Euskal Herrian barrena egiten duen euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

Lehen edizioa 1980an burutu zen. Harrez geroztik 16 edizio burutu dira guztira.

Korrika hasi eta amaitu arte, lekuko bat eskuz esku eta kilometroz kilometro pasatzen da korrikalarien artean, gau eta egun, eten gabe. Guztion arteko lana da, beraz, lekukoa helmugaraino helaraztea, guztion parte hartzea eskatzen duena; eta eskuz esku doan lekukoak, horrez gain, elkarren arteko transmisioa ere iradokitzen du. Lekuko horren barruan korrika helmugara iristean euskaldun ezagun batek irakurriko duen mezua doa, ordura arte sekretupean gordetzen dena.

Batek baino gehiagok pentsatuko du hamar edo hamaika egunez, gau eta egun, eguzki zein euri, hotz nahiz bero, korrika egitea ideia zoroa dela. Eta beharbada zuzen dabil horrela pentsatzen duena. Korrika egitea hizkuntza baten alde egiteko ideia zoroa da.

Idea zoroa 1980an sortu zen. Uste dut sano garai zoroa zela hura, bai munduan bai gurean. Ideia zoroen garaia.

Han-hemen ideia zoro bikainak sortzen ziren. Sortzea edozein gizon-emakumeren parte inportantea zen eguneroko bizitzan. Bestela esanda, gaur ez bezala, inork gutxik zion beldurra sortzeari. Ideia zoro batetik tiraka sortu. Korrikari dagokionez, behinik behin, ideia zoroa portu onera ailegatu zen. Horrela gertatzen da askotan ideia zoroekin.

16 Korrikak banan bana

1. Korrika

1980ko azaroaren 29tik abendu 7ra. Oñatiko Unibertsitatean eta 1820 kilometro (lekuko aldaketa) egin ostean, Bilbon bukatu zen. Azken kilometroa AEKren Batzorde Nazionalak egin zuen, ordutik egin diren korrika guztietan bezala.

Korrikaren lehenengo ediziotik erabaki zuten AEK-koek edizio bakoitzean euskararen eta irakaskuntzaren alorrean nabarmendutako norbait omentzea, eta euren irakasle eta irakasleen irakasle izandako Xabier Peña Albizu hautatu zuten lehenengoan.

Lekuko barruan zihoan mezua Rikardo Arregi idazle eta kazetariak 1966ko urtarrilaren 17an Euskaltzaindiari idatziriko eskutitza zen. Bertan Arregik Euskaltzaindiari Alfabetatze saila sor zezan proposatzen zion, jendeak euskaraz irakurri eta idazten ikastea ardura nagusi baitzuen.

2. Korrika

1982ko maiatzaren 22tik 30era. Iruñetik Donostiara. Lau orduko atzerapenez bukatu zen, ibilbidea (1822 kilometroko ibilbidea) neurtzerakoan AEK-koek izan zituzten akatsen ondorioz. Bigarren korrika honetarako aukeratutako leloa honakoa izan zen: "AEK, euskararen alternatiba herritarra; Korrika, herriaren erantzuna euskararen alde". Bigarren korrika honek Rikardo Arregi bera omendu zuen.

3. Korrika

Baionatik Bilbora, 1983ko abenduaren 3tik 11ra, 1960 kilometrotako ibilbidea egin ondoren, "Euskaraz eta kitto!" lelopean. Bilbora garaiz iritsi zen korrikaren 3. edizioak hiriburuko idazle handia omendu zuen: Gabriel Aresti. Ez zen gutxiagorako: euskaldun berria, esukal poesia modernoaren berritzaile nagusienetakoa, bilbotarra: euskalduntze erakundearen diagnosian zehatz uztartzen zen.

4. Korrika

1985eko maiatzaren 31tik ekainaren 9ra, Atharratzen hasi eta Iruñean amaitu, 1927 kilometrotako ibilbidea eginez. Korrika 4rako aukeratutako leloa "Herri bat, hizkuntza bat" izan zen.

Korrika 3an lekukoa eraman zuen idazle eta pertsona handia omendua zuen korrika 4k, zendu eta hilabete beranduago: Lapurdiko Luhuson jaiotako Piarres Lafitte euskaltzaina.

5. Korrika

1987ko apirilaren 3tik 12ra, Hendaia Bilbora, 2085 kilometrotako ibilbidean. "Euskara, zeurea" oraingo honetarako leloa. Korrika 5ek Balendin Enbeita bertsolari handia (bertsolariak inprobisatzen duten poetak dira) omendu zuen. Bestalde, edizio honetan jaio zen gerora ezinbesteko bihurtu den korrikaren euskarrietako bat: bizkarreko ala petoa.

6. Korrika

1989. Iruñeatik Donostiara, 2100 kilometro egin ondoren, "Euskara Korrika eta kitto - Euskal Herriak AEK" lelopean. Jose Migel Barandiaran antropologoa, mende bateko korrikalaria, izan zen omendua, bizirik zegoela korrikak omendutako lehena.

7. Korrika

Gasteiztik Baionara, 1991ko matxoaren 15etik 24ra, 2100 kilometrotako ibilbidea bete eta gero. Lehenengo aldiz bukatu zen korrika Bidasoaz iparraldean eta bertako hainbat elkarte eta alderdik bere atxikimendua azaldu zioten publikoki.

Korrika 7k Remigio Mendiburu, lekukoaren aita, omendu zuen. 1990ean zendua, bere lekukoaz gain bere lekukotasuna ere utzi zigun.

Korrika honen karietara, 1.200 kultur eta kirol ekitaldi antolatu ziren Euskal Herriko zazpi herrialdeetan, horrela, korrika 8tik aurrera errepikatu den Korrika Kulturalaren hazia jarritz.



ZER DA KORRIKA? ...jarraipena

8. Korrika

2120 kilometro egin zituen Iruñean hasita Bilbon bukatu zen lasterketak, 1993ko martxoaren 26tik apirilaren 4era. "Denok maite dugu gure herria euskaraz" izan zen orduan leloa.

Korrika 8k Martin Ugalde kazetari, historialari, idazle eta kultur eragilea omendu zuen eta berarekin batera Euskaldunon Egunkariaren (euskara hutsezko egunkaria) sortzaile taldea.

9. Korrika

1995eko martxoaren 17tik 26ra, Donibane Garazitik Gasteizera, 2150 kilometro egin ondoren. "Jalgi hadi euskaraz" aukeratu zuten AEK-koek lelotzat. Mikel Laboa kantari donostiarrak omendu zuen.

10. Korrika

10a borobila izanik, ordura arteko Korrikeri omenaldi eginez edo, lehenengoaren antzeko ibilbidea eta ia lelo bera aukeratu zuten AEK-k 10. Korrika burutzeko. Arantzazun hasi zen, 1997ko martxoaren 14ean eta Bilbon bukatu hil bereko 23an, "Euskal Herria Korrika!" izan zelarik leloa.

18 urtez Euskaltzaindiko buru izandako Luis Villasante izan zen omendua eta berak egin zituen hasierako metroak. Ekitaldiak bazuen emoziorik, Villasantek berak eta lekuak, Arantzazuk, euskal kulturaren garapenean izan duten garrantzia dela medio.

11. Korrika

1999ko martxoaren 19tik 28ra, Iruñetik Donostiara. "1+1=hamaika. Zu eta ni euskaraz" erabili zuen lelotzat korrika honek. Eta kanpainaren ildo orokorrari jarraiki omendua aukeratzekoan ere, hamaika (euskaraz asko ere esan nahi du hamaika-k) omendu izan zituen 11. Korrikak.

Lehen aldiz korrikaren historian, Eusko Jaurlaritzak Korrikan parte hartu zuen.

12. Korrika

2001eko martxoaren 29tik apirilaren 8ra, Gasteiztik Baionara, globalizazioaren milurtekoaren hasieran "Mundu bat euskarara bildu" lelotzat erabili az.

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eraman zuen lekukoa 2. kilometroan, era horretan korrika egin duen lehen lehendakaria eta gaur arte (2010) bakarra bihurtuz.

AEK-k Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak omentzea erabaki zuen, bertsolaritzak tradizioa eta modernotasuna, inork baino hobeto uztartzen jakin duelako, antolatzaileen hitzetan.

13. Korrika

2003ko apirilaren 4tik 13ra, Mauletik Iruñera. "AEKrekin Herri bat geroa lantzen" izan zen leloa.

Euskaldunon Egunkariaren itxierak eta horrekin batera izandako atxiloteta eta auziperatzeek markatu zuten goitik behera. "Ez dok hamahiru" mugimendua eta eurekin batera berpizkunde kulturean berebiziko garrantzia izan zuen belaunaldi oso bat omendu zuen Korrika 13k.



Korrika Iruñera heltzeaz zegoela, Nafarroako Gobernuak Barne Sailak korrika Iruñean sartzeari debekatu zuen, antolatzaileei Iruñeko inguruetan bukatzeko aholkatzen zien bitartean. Hainbat tira-bira eta negoziazioen ostean antolatzaileek tribunaletara jo zuten eta bertan auzia irabazi eta horrela, apirilaren 13an Iruñeko Foru Plazara sartu zen lekukoa jende andanaz inguratua eta Martxelo Otamendi (Euskaldunon Egunkariako zuzendaria) eskuetan. Handik irakurri zuen lekukoak zekarren mezua, berak idatzia komisaldegitik irten ondoren.

14. Korrika

2005eko martxoaren 10etik 20ra, Orreagatik Bilbora, "Euskal Herria euskalduntzen. Ni ere bai!" lelopean, 2350 kilometrotako ibilbidea betez.

Korrika 14k euren burua euskalduntzeko erabakia hartu duten milaka herritarrei, helburua jadanik lortu dutenei eta bidean ari direnei egin zuten omen eta horien guztien ispilu eta ordezkaritza harturik, Korrika hasi baino hilabete batzuk arinago zendu zen Andolin Eguskitza poeta santurtziarri.

15. Korrika

2007ko martxoaren 22tik hasita apirilaren 1era, Karrantzatik bukatuta Iruñera, 2360 kilometro burutu eta gero. "Heldu!" izan zen lelo orokorra eta beronen ondoren hainbat azpi-lelo erabili ziren: "Heldu hitzari!"; "Heldu lekukoari!"; "Heldu elkarlanari!"; "Heldu euskarari!"; "Heldu Herriari!".

15. Korrikak Euskal Emakumea omendu zuen, euskararen gordeleku izan diren emakumeak, euskararen bizi iraupenean ezinbestekoa den transmisioa ahalbidetu duten emakumeak. Omenaldiak bere isla izan zuen korrika osoan zehar eta bereziki nabaritu zen korrikaren ibilbidean, ehunka izan baitziren lekukoa eraman zuten emakumeak.

16. Korrika

2009ko martxoaren 26tik apirilaren 5era, Tuteratik Gasteizera 2503 kilometro eginez, ordura arteko korrikarik luzeena. "Ongi etorri!. Euskaraz bizi nahi dugunon Herrira" izan zen leloa.

Euskara ikasi eta gero transmisioa bermatu duten familia guztiei, hala nola euskara galdu eta berrikasiz transmisioa ahalbidetu duten familia guztiei ere egin zien Korrika 16k bere omenaldia.

Lutxo Egiak egindako laburpena

GAELIKOAREN ALDE KORRIKA

KORRIKAren ereduari jarraiki, beste herri batzuetan ere erabaki dute sano ideia zoro interesgarria dela korrika egitea hizkuntza minorizatu baten alde egiteko. Galizian eta Katalunian gureari begiratu zioten aspaldi eta antzeko ekimenak egin izan dituzte. Dena den, Bretanian eta Irlandan utzi du arrasto nabarmena KORRIKak.

Aurten AR REDADEG-en bigarren edizioa burutu dute Britainian, eta RITH-en lehena Irlandan. Seán Ó hAdhmaill RITHeko antolatzaileak euren esperientzia kontatu digu.



Seán Ó hAdhmaill

This year you have organised RITH for the first time. Who has organised it and which have been their main targets?

A team of volunteers who want to make a difference and make the Irish language relevant for generations to come! Rith 2010 is supported by Conradh na Gaeilge, Glór na nGael, Comhluadar, Gael Linn, Seachtain na Gaeilge, and many other organisations that actively support and promote the Irish language.

The organising committee, or lárchoiste, come from all four provinces of Ireland, from Gaeltacht and non-Gaeltacht areas, and from a variety of disciplines such as education, finance, information technology and Irish language support groups. The lárchoiste visited the Basque Country in March 2009 to experience your equivalent cultural festival, the Korrika and we met with the event organisers to get direction on the launch of the Irish festival.

Rith 2010 is a brand new way to celebrate the Irish language and culture in a way that is visual, fun, community based and can be celebrated throughout the island of Ireland. Rith 2010 also aims to raise money to create a new fund for the promotion of the Irish language in the community.

What does RITH mean? Why did you choose that name?

"Rith" means "run" in the Irish language. Because that's what it is, a 1600Km relay-run around Ireland promoting the Irish language.

Have you chosen any special motto for this edition? For example in the last KORRIKA we dedicated the edition to those that coming from outside the Basque Country have learnt to speak the language. What about you?

As well as RITH2010 - Rith ar son na Gaeilge ([a] run for the Irish language). Chomh maith le "Rith ar son na Gaeilge" we had "Ni Nearth go gur le chéile" (In Unity, there is strength).

As we do, you have decided to have baton passing on every kilometre. What was inside it?

A special hand-carved baton has been designed that will carry a hidden message throughout Rith 2010. At the end of the run, the message of support for the Irish language, written by Mary McAleese, the President of Ireland, will be read out as part of the St. Patrick's Day parade in Galway. The message is available on our website at this url. <http://www.rith.ie/teachtaireacht>

As a first edition, how do you evaluate it? How was it? Have you fulfilled your expectations? Has it been very difficult to organise a nine-day running relay-race?

Organising an event for the first time is always a challenge. We had to start so many things from scratch; build up new relationships, develop a website, raise funding, and of course explain the concept of the Rith to many people for the first time. But we had a great energy on the team, with over a hundred volunteers up and down the country. We learnt many lessons that will contribute to the success of the next Rith in 2012. All in all, we were delighted with our first ever Rith event.

What was the response of the Irish people?

We had a tremendous reception from schools, sports clubs, language organisations and the general public that made up the 20 thousand participants along the route. We have lots of people inviting us back already for the 2012 event and the planning is already underway!

Can you tell me any curious anecdotes during the race?



There was a strange but nice scene of a band playing on the side of the road, a dual-carriage way, but in the middle of nowhere. We weren't expecting it but it was nice that they made the effort to support us. <http://www.youtube.com/watch?v=nTN3rZ0LkbA>



...jarraipena

This has been the first edition; will there be a second one?

Planning has already begun. It will take place in 2012 and will be even bigger and better than RITH 2010.

In your opinion, what does it have to do the running event and the promotion of a language?

It doesn't in and of itself but it does allow us to connect with people throughout Ireland north, south, east and west, Gaeltacht, Galtacht (english speaking area), rural and urban. It is visual and promotes not only physical wellbeing but also cultural wellbeing. It's also an extremely open way of engaging with communities through Irish, it doesn't matter who much Irish you have (if at all) to run a kilometre as part of the RITH festival. The event also inspired people who wanted to support the revival of the language in their area but didn't know how best to do this.

Just briefly, what is nowadays the situation of Gaelic language? Are there any reasons to feel positive?

Many! We have a huge demand in Irish-medium education from pre-school to third-level. More businesses are starting to see the value of using Irish, including a recent campaign in New York to have an Irish language option on ATMs.

The Irish government are finalising a National Strategy for the Irish-language and they're currently trying to get all-party support for it. There are also many challenges facing the Irish language especially in the Gaeltacht but with the development of Irish language festivals and community events like RITH 2010 we are normalising the use of the language. As we say in Irish Tús maith, leath na hOibre (a good start is half work).

In our case, we have been 30 years running to promote our language. What do you think about our experience?

The Basque community spirit and determination is enviable. We've travelled to the Basque Country and taken part in the Korrika and met with it's organisers. We acknowledge the success you've made of the Korrika over its 30 years of development. We also believe that the Korrika and other language initiatives have made the Basque language revival an important issue that physically ties each village to the next. We have learned from your experience and continue to do so while also making RITH an distinctly Irish festival and passing on our knowledge and expertise on. We look forward to working with our Basque friends to promote and develop the Korrika/RITH concept and hopefully we'll see you all at next year's Korrika!

BESTE KORRIKA BATZUK



Korrika Beijing-en



Korrika Shangai-n



Korrika Breizh-en



Korrika Montevideon



Korrika New York-en

Korrika, berreskurapenaren sinboloa

Paul Bilbao (Kontseiluko Idazkari Nagusia)

1980ko azaroa: Algorta, neure sorlekua. Ume bat besterik ez nintzela parte hartu nuen lehen aldiz Korrikan. Larunbata goiza zen eta eguraldi kaxkarra zegoen. Ama, anaia, lehengusu-lehengusinak, izebak... denak geunden etxeko atarian ezagutzen ez genuen zerbaiten zain. Eta orduan iritsi zen jende-tropela lasterka eta oihuka. Geu ere sartu ginen Korrikara...

2009ko martxoa: Nafarroako hegoaldean dagoen Tuterako herria. Agintariak ingelesari euskarari, berezko hizkuntzari, baino balio handiagoa ematen dioten herria. Korrikaren 16. edizioa noiz hasi zain. Bederatzi egunez, gau eta egunez, 2500 kilometrotik gora egingo duen lasterketaren lehen kilometroak egiteko prest.

Hogeita bederatzi urte igaro dira Korrikarekin izandako bi harreman horien artean. Hala ere, denbora-tarte hori igaro den arren, hurrengo urtean beharrezkoa izango da, beste behin, euskararen herria korrika zeharkatzea, gure hizkuntzaren berreskurapena bizkortu beharrean gaudelako.

29 urteotan aldaketak izan dira gure hizkuntzaren berreskurapenean, baina ez guk nahi genuen beste. Egun, 21.000 km² besterik ez duen gure hizkuntzaren lurraldean euskaraz jarduteko eskubidea bizi garen tokiaren arabera aitortzen zaigu. Frantziako Estatuaren mende dagoen euskararen herrian eskubidez gabeturik jarraitzen dugu.

Espainiako Estatuan, bizi garen autonomia-erkidegoaren arabera aitortzen zaigu euskaraz bizi ahal izatea. Akaso, horregatik, Korrikak lasterka ibili behar du euskararen herrian, euskaldun guztioi gogorarazi behar digulako berezko hizkuntzan, euskaraz, bizitzea oinarritzko eskubidea dela.



Azken 29 urteotan euskaldunon kopuruak gora egin du; gero eta literatura gehiago irakur dezakegu euskaraz, jatorrizkoa eta itzulpenak; euskarazko hedabideak gero eta ugariagoak dira; interneten ere euskara toki duina ari da hartzen... Hala ere, oraindik Korrika egin behar dugu geure hizkuntzaren alde; geurea bezalako hizkuntza gutxiagotuek presa dutelako.

Euskararen herri osoan euskaraz ikastea, unibertsitatean ikasketak euskaraz egitea, zinema euskaraz ikusteak, produktuetako etiketak euskaraz egotea, medikuarekin euskaraz jardutea... gauza asko falta zaigu geure hizkuntzan normaltasunez bizi ahal izateko. Hori erdiesteko jakin dakigu ezin garela egon agintarien borondatearen zain. Finean, geure hizkuntzan bizi ahal izateak guztion konpromisoaren beharra du, eta Korrika hori erakusteko bide eraginkorra da.

Izan ere, nahiz eta Korrika AEKren ekimena den, euskararen berreskurapenaren sinbolo bihurtu da. Korrikaren bidez herritar guztiak aktibatzen dira, zeinek ahal duena eskaintzen dio Korrikari, eta ondorioz euskararen berreskurapenari. Ezina ekinez egin daitekeela erakusten du Korrikak. Euskararen herriaren indar-erakustaldia da Korrika, hizkuntzari jarritako mugak gainditzen ditu Korrikak, euskaraz bizi nahi duen herria islatzen du Korrikak.

2011n izango da hurrengo Korrika. Beste behin ehunka mila pertsona lasterka ibiliko da euskaraz bizi nahi duen hizkuntza-komunitatearen kide dela aldarrikatzen. Neu ere bai!!!